

2020KO AZAROAREN 26AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN

AKTA

MODUA: Presentzialki

TOKIA: Batzar aretoa

EGUNA: Hogeita sei

HILABETEA: Azaroa.

URTEA: Bi mila eta hogei.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko seiak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Aitor Aldasoro Iturbe (EAJ-PNV)

BILDUAK: Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

Nerea Manzidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)

Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)

1.- AURREKO AKTA. Aurreko Aktaren onspena. 2020-10-29.

2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK:

NAFARROA ETORBIDEA ETA ORIAMENDI KALEAN ARTEAN IGOGAILU PUBLIKOA
INSTALATU ETA BERRURBANIZATZEKO OBRAK KONTRATATZEA. 2020PROB0002

Lurralde batzordearen proposamenaren berri eman da, aipatutako obrak kontratatzeke proiektua eta baldintza pleguak onartzea eta kontratazioa deialdi publiko irekiaren bidez egitea, ondorengo xehetasunekin:

1.- *Prozedura:* irekia publizitatearekin. Lizitazio elektronikoa.

2.- *Izapidetzea:* arrunta

3.- *Lizitazio prezioa:* 223.944,91 €, BEZ gabe

4.- *Egikaritze epea:* 6 hilabete

5.- *Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa:* *Klasifikazioa:*

Urteko negozio bolumena, edo urteko negozio bolumena **kontratuaren esparruan**, azken hiru ekitaldietako ekitaldirik onena kontuan hartuta, enpresaren eraketa edo jardueren hasiera dataren edo eskaintzak aurkezteko dataren arabera.

Negozio bolumenak gutxienez ere izan beharko du kontratuaren balio zenbatetsia x 1,5 (335.917,36 €)

6.- *Kaudimen tekniko:*

a) *Azken bost urteetan zehar egikaritutako obren zerrenda, egikaritze zuzenaren ziurtagiri bitartez egiaztatuak; ziurtagiri horietan adierazi beharko dira obren zenbatekoa, datak eta egikaritze tokia eta bertan baieztatu beharko da lanbidearen ohiko arauen arabera burutu zirela obrak eta behar bezala amaitu zirela; kasuaren arabera, ziurtagiri hauek zuzenki helaraziko dizkio agintaritzak eskudunak kontratazio organoari.*

b) *Titulu akademiko eta profesionalak eta, bereziki, kontratuaren egikaritzearen arduradunenak edo arduradunenak, bai eta zuzenki egikaritzearen ardura izango duten teknikarienak ere (ikus 14. atala).*

500.000 eurotik beherako balio zenbatetsia duten kontratuetan, kontratista berriki sortutako enpresa bat denean, hau da, azken bost urteetan sortutakoa, enpresaren gaitasun teknikoa

egiaztzeko aurreko b) eta c) paragrafoetan aipatzen diren bitartekoetako bat edo bat baino gehiago baliatuko da/dira, baina ez zaie aplikagarria izango a) paragrafoan obra kopuru jakin bat egikaritzearen inguruan xedatutakoa.

Klasifikaziorik ez dago, zenbatekoa 500.000 € baino txikiagoa delako.

Baina lizitatzailerak salbuetsita egongo da bere ekonomia eta finantza-kaudimena eta gaitasun teknikoa justifikatuzetik, baldin eta honako sailkapen hau egiaztatzen badu:

C taldea: ERAIKUNTZA

2 azpitaldea: fabrikako edo hormigoizko egiturak

1. kategoria: = < 150.000 euro

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: 26 egun kontratazio plataforman argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatuta.

8.- Adjudikazio irizpideak:

Balorazio automatikoa:

- Proposamen ekonomikoa: 60 puntu.

- Berme epea handitzea: 10 puntu.

Balorazio ez automatikoa:

Memoria teknikoa: 30 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profileen argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerak administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

11.- Kontratua gauzatzeko baldintza berezia, gizarte arlokoa: Kontratua gauzatzeko langile berriak kontratatu behar direnean eta enpresa kontratistak edo azpikontratistak plantillan emakumeen ordezkari desorekatua duenean kontratuaren exekuzioari lotuta, enpresak, kontratua exekutatzeko eta exekuzio epe osoan zehar, gutxienez emakume langile berri bat kontratatu beharko du edo emakume baten aldi baterako kontratua mugagabe bihurtu beharko du. Plantilla desorekatutzat joko da, plantilla osoan emakumeak % 40tik behera badira.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

3.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut